

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen 2018ko bigarren seihilekoko errolda, eta ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jartzea

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2018ko bigarren seihilekoa) ordaindu behar dutenen errolda eginik, 2019ko urtarrilaren 28an onetsi zen. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko otsailaren 25ean hasi eta martxoaren 25ean bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2019ko martxoaren 4an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Internet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Manzanos, 2019ko urtarrilaren 28a

Lehendakaria

FRANCISCO JAVIER ARGOTE